

FOODI

IRABAZI-ITURRIAK

Gure enpresak, kontuan izanda eskaintzen duguna zerbitzu bat dela, aktiboen salmenten mozkinekin hornituko da. Hauek bezeroetatik eta supermerkatuekin egiten ditugun partaidetzetatik etorriko dira.

Irabaziak lortzeko bide desberdinak:

Ordainketa bakarrekoa **bezero arruntentzat (4.95€-koa)**

*70 urte baino zaharragoak diren pertsoneri, 2'5€-ko tarifa kobratuko zaie.
*Ibilbideak oso luzeak izanez gero(6km-tik gora), bidaltze- gastuak igoko dira 6€-ra.

Supermerkatuek ordaindu beharko digutena beraien supermekatuan erosteagatik.Hauek komisio bat ordaindu beharko digute, garraiatzen ditugun produktuen prezioaren arabera, hau da komisioa aldakorra izango da eskariaren bolumenaren arabera, baina **komisio hau %3-koa da 100€ baino gehiagoko eskarietan, %2 50€ baino eskarietan eta 50€ baino gutxiagokoentzat %1a.**

Gainera, bazkide egiteko aukera ere emango dugu. **Bazkidetzak** 35€ ko zenbatekoa izango du. Bazkideak nahi dituen eskariak (gehienez 15) egin ditzake, dohain, tarifa finko baten moduan.

Gure proiektu hau martxan jartzeko eta hasierako inbertsioa egiteko, gure konfiantzazko **bankuari kreditu** bat eskatu beharko diogu, bulegoa alokatu eta hau bulego-materialaz hornitzeko eta bi bizikleta erosteko.

Lanbidek eta hainbat entitate publikok ematen dituzten **diru laguntzak** jasoko ditugu.

Bazkide bakoitzak 500€ utziko ditu, enpresa martxan jartzeko.

Renting izango dela aukerarik errentagarriena pentsatu dugu, hasiera batetik furgoneta eta bizikleta elektrikoa erosi beharrean renting enpresa bati alokatuko diogu. Hasteko, furgoneta bakarra alokatuko dugu, eta negozioa hazten den neurrian, gehiago alokatuko ditugu.

